


## Alzheimerraren transmisio-bide bat deskribatu dute kasu bakan batzuetan oinarrituta

Alzheimer gaixotasunaren sintomak aurkitu dituzte hilotzen garunetatik erauzitako hormonekin tratatu zituzten bost pertsonatan. Kasu horien ikerketak iradoki du litekeena dela bost pertsona horiek alzheimerra garatu izana tratamenduan amiloide proteinak jasotzearen ondorioz.



Amiloide proteinaren metaketak post mortem.  
ARG.: Gargi Banerjee *et al/Nature Medicine*

Bost kasu horietan, gaztetan hazkuntza-hormonak jaso zituzten urteetan, garapenean zituzten arazoak tratatzeko. Orain, hazkuntza-hormonak sintetizatu egiten dira, baina, garai haietan, hilotzen guruin pituitariotik erauzten ziren. Jada badira 40 urte ez direla hilotzetatik erauzitako hormonak erabiltzen tratamenduetan.

Ikertzaileek argi utzi dute kasu horiek benetan bereziak eta bakanak direla. Batetik, garatu duten alzheimerra ez da ohikoa; besteak beste, oso goiz azaldu zitzaizkien sintomak (38-55 urte bitartean). Bestetik, hormonon tratamendua ez ezik, beste tratamendu batzuk ere jaso zituzten, eta haiek ere izan zezaketen eragina asaldu kognitiboan.


Nolanahi ere, ikerketa baliagarritzat jo dute alzheimerraren balizko transmisio-bide bat ezagutzeko. ●

## Mielinak garunaren energia-gordailu gisa funtziona dezakeela frogatu dute

Ariketa fisikoa denbora luzez egiten denean, hala nola maratoi batean, nerbio-zelulek ordezko energia-iturrietara jotzen dute. Hala berretsi dute ikerketa batean. Tartean, mielinara jotzen dute, hau da, nerbio-zuntzak inguratzen dituen egitura. [Ikerketan](#), hainbat zentrotako ikertzaileak aritu dira elkarlanean (EHU, CIC biomaGUNE, CIBERNED, Biobizkaia, Achucarro...).

Zenbait maratoi-lasterkariren garunak eskaneatu zituzten, lasterketaren aurreko eta ondorengo egunetan eta handik bi astera. Hala, ikusi zuten maratotoa egiteak mielina-edukia murrizten duela. Handik bi astera, ordea, mielina-mailak ia lehen-goak ziren. Dena dela, ikertzaileek ohartarazi dute esfortzua gehiegi luzatzeak ondorio funtzionalak izan ditzakeela garunean.

Nolanahi ere, ondorioztatu dute mielina ordezko energia-biltegi bat izan daitekeela. Eta adierazi dute horrek garunaren eskakizun energetikoei buruzko ikuspegi berri bat ireki duela. Aurreratu dute ireki ditzakeela ildo berri batzuk neuroendekape-nezko gaixotasunak aztertzeke eta tratatzeko ere, hala nola esklerosi anizkoitza eta beste gaixotasun desmielinizatzaile batzuk. ●



Lasterkari baten RMN bidezko irudiak. Erdikoan, esfortzuak eragindako mielina-galera nabari da. ARG.: Pedro Ramos Cabrer/CICbiomaGUNE.